

## AURKIBIDEA


3.1 Sarrera.....	3
3.1.1 Hasierako Baldintzak.....	4
3.2 Zilindro Oleohidraulikoa.....	4
3.2.1 Atorra .....	4
3.2.1.1 Atorraren barne diametroa.....	4
3.2.1.2 Atorraren lodiera.....	8
3.2.2 Kirtena.....	15
3.2.2.1 Kirtenaren Diametroa.....	15
3.2.2.2 KIRTENAREN MUTURRA .....	23
3.2.3 ESTALKIA.....	27
3.2.3.1 ESTALKIAREN LODIERA .....	28
3.2.3.2 ESTALKIAREN HARIA.....	28
3.2.4 GIDARIA.....	30
3.2.4.1 GIDARI HARIA .....	30
3.2.4.2 GIDARIAREN LODIERA .....	31
3.2.5 PISTOIA.....	31
3.2.6 BRIDA.....	32
3.2.6.1 BRIDAREN ETA ZILINDROAREN ARTEKO LOTURA .....	33
3.2.7 TORLOJUAK .....	34
3.2.7.1 Torloju bidezko loturak .....	34
3.2.8 JUNTA, GIDA ERAZTUNAK ETA ARRASPA .....	38
3.2.8.1 GIDARIA.....	38
3.2.8.2 ARRASPA.....	39
3.2.8.3 GIDARI JUNTA.....	40
3.2.8.4 GIDA ERAZTUNA.....	41
3.2.8.5 JUNTA TORIKOA .....	42
3.2.8.6 ESTALKIA.....	44
3.2.8.7 PISTOIA.....	44
3.2.8.8 KIRTENA.....	47
3.3 Sistema Hidraulikoa.....	48
3.3.1 Ponpa Hidraulikoa .....	48
3.3.2 MOTOR ELEKTRIKOA .....	49
3.3.3 SISTEMA HIDRAULIKOAREN HODIERIA .....	51

3.3.4	ERRAKORRAK.....	54
3.3.5	ELEKTROBALBULA .....	56
3.3.6	Emariaren kontrolerako balbula .....	57
3.3.7	Presioaren kontrolerako balbula.....	60
3.3.8	SEGURTASUNA BALBULA .....	61
3.3.9	OLIOA .....	62
3.3.10	OLIO BILTEGIA .....	64
3.3.11	BERO TRUKAGAILUA .....	65
3.3.12	BALBULA TERMOESTATIKOA.....	66
3.3.13	BALBULA ITZULEZINA .....	67
3.3.14	PRESIO LERROKO IRAGAZKIA .....	68
3.3.15	Aspirazio lerroko iragazkia .....	69
3.3.16	Termometro-dun nibel adierazle optikoa .....	70
3.3.17	Nibelezko zunda .....	70
3.3.18	Aire iragazkia.....	70
3.3.19	Husteko Giltza .....	71
3.3.20	Tapoia.....	71
3.4	Egitura .....	71
3.4.1	Cross-en metodoa .....	71
3.4.2	GOIKO MUNTAIA.....	72
3.4.3	BEHEKO MUNTAIA .....	75
3.4.4	MUNTAGEN ARTEKO ZUTABEAK.....	77
3.4.5	GIDA SISTEMA .....	99
3.4.5.1	Gida ardatza .....	100
3.4.5.2	TOPEA.....	107
3.4.5.3	Mahai mugikorrekotura .....	107
3.4.5.4	Gidari junta.....	111
3.5	Loturak .....	112
3.5.1	Segurtasun koefizienteak .....	112
3.5.2	GOI MUNTAGA.....	117
3.5.3	BEHE MUNTAGA.....	122
3.5.4	Muntagen arteko zutabeak.....	128
3.5.5	Zutabe eta muntagen arteko lotura.....	129
3.5.6	Beste lotura batzuk .....	130
3.5.6.1	Muntagen estalkia.....	130
3.5.6.2	Gida sistemako ardatz eta tope arteko lotura .....	130

### 3.1 Sarrera

Alderdi honetan prentsa hidraulikoaren gain agerturiko faktore guztiak definitu eta dimentsionatzeko beharrezko dirazan kalkuluak burutuko dira. Kalkuluak arlo mekaniko eta hidraulikoaren ingurukoak dira. Horretarako, eranskinak lau atal desberdinetan banandurik aztertuko dira: zilindro oleohidraulikoa, sistema hidraulikoa, egitura eta erabilitako soldadura.

Kalkuluekaz hasteko zilindro oleohidraulikoaren osagaiak aztertuko dira. Behin kalkulu horreek burututa, kalkuluak sistema hidraulikoarentzako egingo dira. Kalkuluekaz jarraituz, zilindro oleohidrauliko eta sistema hidraulikoa bere gain izanda egitura definitu egingo da, hau da, egitura gai izan behar beharko da sortzen diran indarrak eusteko.



3.1 Irudia

Eta prozesuagaz amaitzeko, lotura hobeko bermatzeko egituraren soldadurak agertuko dira.

### 3.1.1 Hasierako Baldintzak

Prentsa hidraulikoa honek hotzean lan egingo dau. Prentsaren indarra xafla baten gain egingo da deformatuko dan pieza xafla bat lortu arte.

Prentsaren diseinuagaz hasi ahal izateko lehenik eta behin lan indarrekaz erlazionaturiko hainbat ezaugarri aurredefinitu behar dira.

Honeek izango dira proiektuaren diseinuagaz hasteko erabiliko diran hasierako datuak:

- Prentsa Indarra: 200000Kg
- Ibilbidea: 750mm
- Mahai neurriak: 2000 x 1100 mm
- Lan abiadura: 15 mm/s
- Beherazko abiadura: 80 mm/s
- Igoera abiadura: 100 mm/s
- Xafla metalikoaren lodiera: 2mm

## 3.2 Zilindro Oleohidraulikoa

### 3.2.1 Atorra

Atal honetan zilindro oleohidraulikoagaz hasteko lehen kalkuluak burutuko dira.

#### 3.2.1.1 Atorraren barne diametroa

Zilindro baten kalkulua osatzeko, kanpoaldeko gorputza osatzen dauan barne diametroan eta honen lodieran datza. Horretarako jariakinen mekanikan erabilgarri dan presioaren ekuazioa erabili egingo da, non, presioa, indarra eta azalera lotzen diran.

$$P = \frac{F}{A}$$

non, A: Atorraren barne azalera minimoa

F: Zilindroak garatuko dauan indarra, 200Tn.

P: Presioa

Kalkulekaz hasteko presioaren balioa jakina izan behar da, horretarako erabili egiten da normalizaturik dagoan balio bat, arau honetatik ateratakoa: UNE 101362-1986.

### 5 PRESIONES NOMINALES

El valor de la presión nominal debe ser recogido de entre las presiones siguientes expresadas en bar:

6,3 – 10 – 16 – 25 – 40 – 63 – 100 – 160 – 250 – 315 – 400

### 3.1 Taula

Lan presioa: 315 bar

Presio max: 400 bar

Presioaren balioa zein dan aukeraturik, atorraren azalera minimoa kalkulatu egingo da.

Goiko adierazpena erabilita, Azalera minimoak lortuko dira, bai lan presiorako zein presio maximorako.

$P_1$  bezala 315 bar erabilita:

$$A_1 = \frac{F}{P_1} = \frac{200000}{321.1} = 622,8589 \text{ cm}^2$$

$$315 \text{ bar} = 315 \cdot 10^5 \frac{\text{N}}{\text{m}^2} \cdot \frac{1\text{Kg}}{9,81\text{N}} \cdot \frac{1\text{m}^2}{10^4\text{cm}^2} = 321,1 \text{ Kg/cm}^2$$

$P_2$  bezala 400 bar erabilita:

$$A_2 = \frac{F}{P_2} = \frac{200000}{407.74} = 490,5086 \text{ cm}^2$$

$$400 \text{ bar} = 400 \cdot 10^5 \frac{\text{N}}{\text{m}^2} \cdot \frac{1\text{Kg}}{9,81\text{N}} \cdot \frac{1\text{m}^2}{10^4\text{cm}^2} = 407,74 \text{ Kg/cm}^2$$

Behin adierazpen horren bitartez azalerak kalkulatzeko lortuta, barne diametroaren balioa ebatzi daiteke.


Horretarako erabiliko dan adierazpena honako hau izango da:

$$A = \frac{\pi \cdot \phi^2}{4} \longrightarrow \phi = \sqrt{\frac{4 \cdot A}{\pi}}$$

$$\phi_1 = \sqrt{\frac{4 \cdot A_1}{\pi}} = \sqrt{\frac{4 \cdot 622,8589}{\pi}} = 28,1611 \text{ cm} = 281,611 \text{ mm}$$

$$\phi_2 = \sqrt{\frac{4 \cdot A_2}{\pi}} = \sqrt{\frac{4 \cdot 490,5086}{\pi}} = 24,99069 \text{ cm} = 249,9069 \text{ mm}$$

Aukeratu beharreko diametroa determinatzeko, presioekin bezala diametroek be normalizaturik egon behar dira, horregatik UNE 101860-1986 arautegia erabiliko da.



AL – diámetro interior cilindro  
MM – diámetro vástago pistón

Fig. – Identificación diámetros

### 3.2 Irudia

**Tabla 1**  
**Diámetros de cilindros<sup>1)</sup>**

		Medidas en milímetros										
AL		8	10	12	16	20	25	32	40	50	63	80
	(90)	100	(110)	125	(140)	160	(180)	200	(220)	250	(280)	
	320	(360)	400	(450)	500							

1) Una extensión hacia mayores valores de esta gama puede desarrollarse, si fuese necesario, usando las series de números normales R10 para los diámetros AL ≤ 100 mm y la serie R20 para los diámetros AL > 100 mm. Los valores entre paréntesis son valores no preferenciales y deben usarse únicamente en aplicaciones especiales.

### 3.2 Taula

320mm-tako diametroa erabili beharko litzateke, gure lan presioak daukan diametroa baino handiagoa izan behar dalako.

Kasu honetan, 315 bar-eko lan presioagaz 281, 611mm-tako diametro lortzen denez, hori baino handiagoa dan diametroa behar izango da. Beraz taula normalizatu horretan aurki daitekeen balioa 320mm da.

Beraz, barne diametroa ezaguna izanda, aurretik aukeratutako bi presioekaz prensa indarrak eragin daiken indar maximoa kalkulatu da, 200 Tn-ra gehien hurbiltzen dana aukeratzuz.

$$F = P \cdot A = P \cdot \frac{\pi \cdot \phi^2}{4}$$

$$F_1 = P_1 \cdot \frac{\pi \cdot \phi^2}{4} = 321.1 \cdot \frac{\pi \cdot 32^2}{4} = 258243 \text{ Kg}$$

$$F_2 = P_2 \cdot \frac{\pi \cdot \phi^2}{4} = 407.74 \cdot \frac{\pi \cdot 32^2}{4} = 327923 \text{ Kg}$$

Lehenengo zein bigarren kasuetarako barne diametro bera erabiliko da, cm-ra pasatzen dana.

Bi balio indar honeetatik 200 Tn-ra gehien hurbiltzen dan emaitza lehen presioa erabiliz lortuko dana da.

Horregatik honeek izango dira xafla prozesu honetarako erabiliko diran balioak:

- P = 315 bar
- $\phi = 320$  mm
- A = 622, 8589 cm<sup>2</sup>

### 3.2.1.2 Atorraren lodiera

Atorraren lodiera kalkulatzeko faktore batzuk kontsideratuko dira. Lehenik eta behin atorraren materiala definitu. Ondoren, tentsioa fluenta limitean eta trakzioarekiko erresistentzia zehaztuko dira. Hau kontuan izanda, zilindro oleohidraulikoetarako erabilpena daben hodi lapeatu baten enpresaren katalogora jo eta ST-52 materialdun datuak aukeratuko dira DIN-2391/94 arauaren arabera.

CARACTERÍSTICAS MECÁNICAS					
TIPO DE ACERO	NORMA	Rm (N/mm <sup>2</sup> )	Re mín (N/mm <sup>2</sup> )	A mín.%	Condic. Sumin.
ST-52.0	DIN-2391/94	580 mín	420 mín	10	BK+S
E-355	EN-10305-1	580 mín	450 mín	10	SR

3.3 Taula

Tentsio fluenta limitean (Re): 420 N/mm<sup>2</sup>

Trakzioarekiko erresistentzia (Rm): 580N/mm<sup>2</sup>

Kalkuluekaz hasteko, aztertu beharreko hodia paretaren lodiera dirala suposatuko da.

$$e < 0,1 \cdot d \rightarrow \text{pareta txikia}$$

$$e \geq 0,1 \cdot d \rightarrow \text{pareta lodia}$$

non,

e= hodiaren paretaren lodiera

d= hodiaren barne diametroa

Pareta txikiko hodiaren agerturiko tentsioa egoera biaxialean agertzen da. Tentsioa paretaren guztian zehar konstante mantentzen da, normalean presio txikietarako erabiltzen dalarik.

Hala ere, presio handietan lan egiten danean, paretaren lodiera hormak erabiltzen dira. Kasu honetan, tentsio egoera triaxiala da eta tentsioa ez da konstantea hodiaren lodiera osoan zehar.






Fig. B.5 Tensiones en un cilindro de paredes gruesas

### 3.3 Irudia

Aurreko irudian tentsio aldakuntza azter daiteke lodiera desberdinetan. Hori aztertuz ikusi daiteke hodiaren barne diametroan ematen dirala tentsio handienak. Beraz, hodiaren lodiera zehazteko barne diametroak sorturiko tentsioak aztertuko dira.




Fig. B.6 Variación de la tensión tangencial a través de la pared de un cilindro grueso,  $K = b/a = 2$

### 3.4 Irudia

Tentsioaren kalkuluak burutzeko Lamé-ren ekuazioak erabiliko dira:

$$\sigma_{bal} = \sigma_t + \sigma_r$$

$$\sigma_r = \frac{a^2 p_i - b^2 p_o}{b^2 - a^2} - \frac{(p_i - p_o) \cdot a^2 \cdot b^2}{r^2 \cdot (b^2 - a^2)}$$

$$\sigma_t = \frac{a^2 p_i - b^2 p_o}{b^2 - a^2} + \frac{(p_i - p_o) \cdot a^2 \cdot b^2}{r^2 \cdot (b^2 - a^2)}$$

non,

a= barne erradioa

b= kanpo erradioa

$p_i$  = barne presioa

$p_o$  = kanpo presioa

$r$  = aztertzen ari garan puntuko erradioa

$\sigma_r$  = tentsio erradiala

$\sigma_t$  = tentsio tangenziala

Ekuazio horreekaz jarraitzeko kanpo presioa nulutzat hartuko da, hau da,

$$p_0 = 0.$$

Behin tentsio erradiala zein tangenziala sinplifikaturik, Trescaren irizpidearen bitartez hutsegitea non emonga dan aztertuko da.

$$\tau_{max} = \frac{\sigma_{max} - \sigma_{min}}{2} \geq \sigma_f$$

Irizpide honetatik tentsio baliokidea lortu daiteke:

$$\sigma_{bal} = \sigma_{max} - \sigma_{min}$$

Ekuazio eta balio guztiak elkar konbinaturik honak adierazpen hau lor daiteke:

$$\sigma_{bal} = \frac{R_e}{CS} = p_i \cdot \frac{2x^2}{x^2-1}$$

Non,

$$x = \frac{b}{a}$$

$$R_e = 420 \frac{N}{mm^2} \cdot \frac{1Kg}{9,81N} \cdot \frac{100 mm^2}{1cm^2} = 4281 \frac{Kg}{cm^2}$$

$$p_i = 315 \text{ bar} = 321.1 \frac{Kg}{cm^2}$$

CS = Segurtasun koefizientea = 3

$$x = \sqrt{\frac{R_e}{R_e - 2 \cdot CS \cdot p_i}} = 1,34$$

Barne eta kanpo diametroak erlazonaturik dagoz. Hurrengoko adierazpenen bitartez, bi diametroak elkar erlazonaturik, lodiera kalkulatu ahal izango da.

$$x = \frac{\phi_{kanpo}}{\phi_{barne}} = 1,34 \rightarrow \phi_{kanpo} = 1,34 \cdot \phi_{barne} = 1,34 \cdot 320 \approx 430mm$$

$$e = \frac{\phi_{kanpo} - \phi_{barne}}{2} = \frac{430 - 320}{2} = 55mm$$

Atorraren dimentsioak honako honeek izango dira:

$$\begin{aligned}\phi_{barne} &= 320mm \\ \phi_{kanpo} &= 430mm \\ e &= 55mm\end{aligned}$$

### NEKEA


Atorraren barne diametroa eta lodiera jadanik definitu egin dira. Hori osaturik tentsio kalkuluak burutu dira. Onargarritzat hartu dira. Horregatik, egin beharrezko azken frogapenak neke ingurukoak izango dira.

Pieza bateri indar bat aplikatzen jago. Prozesu hori behin da berriro errepikatuz, azkenean pieza hori nekegatik huts egingo dau. Nekea, tentsio kontzentrazioa dagoan une batean hasiko da, pitzadura txiki bat sortuz. Denbora Aurrera joan ahala pitzadura handitu egingo da, zeharkako sekzioa txikituz. Azkenik, piezaren apurketa emango da.

Apikaturiko indarrak modu irregularrean jotzen dabe, forma sinusoidal bat hartuz, ziklo batzuen menpe dagoana.

Tentsio aldakor honeek itxura sinusoidala dauka.

Ziklo asimetrikoa:




3.1 Grafikoa

$$|\sigma_{max}| \neq |\sigma_{min}|$$

$$\sigma_{max} > 0$$

$$\sigma_{min} < 0$$

Ziklo simetrikoa:




3.2 Grafikoa

$$|\sigma_{max}| = |\sigma_{min}|$$

$$\sigma_m = 0$$

$$|\sigma_{max}| = |\sigma_{min}| = \sigma_a$$

Aldizkako zikloa:




3.3 Grafikoa

$$\sigma_{min} = 0$$

$$\sigma_m = \sigma_a = \frac{\sigma_{max}}{2}$$

Pultsazioko zikloa:



3.4 Grafikoa

$\sigma_{min}$  eta  $\sigma_{max}$  zeinu berdina dabe.

Prentsa hidraulikoari jagokon zikloa aldizkakoa izango da.

Jarraian, Soderberg-en ekuazioa erabiliko da kalkuluak burutzeko, ekuazio hau denboran zehar prentsa hidraulikoaren zilindroek kargen ondorioz pairatzen dituzten tentsioak aldakorrak diralako hautatu da.

$$\frac{1}{CS} = \frac{\sigma_m}{\sigma_{yp}} + \frac{\sigma_r}{\sigma_e}$$

non,

CS= segurtasun koefizientea

$\sigma_m$ = batezbesteko tentsioa

$\sigma_r$ = tentsio alferno

$\sigma_u$ = Nekearen tentsio limitea

$\sigma_{yp}$ = materialaren isurpen tentsioa

$\sigma_e$ = Piezaren neke muga tentsioa

$\sigma_e^l$  = Materialaren neke muga


Jarraian  $\sigma_{max}$  eta  $\sigma_{min}$  kalkulatu dira. Kontutan hartu behar da prozesuan emandako egoera tentsional kritikoa atorraren barrualdeko puntuan emoten dala.

$$\sigma_r = \frac{\sigma_{max} - \sigma_{min}}{2}$$

$$\sigma_m = \frac{\sigma_{max} + \sigma_{min}}{2}$$

Atorraren lodiera kalkulatu tako  $\sigma_{bal}$  erabilita:

$$\sigma_{bal} = p_i \frac{2x^2}{x^2 - 1} = 321,1 \cdot \frac{2 \cdot 1,34^2}{1,34^2 - 1} = 1450 \text{ Kg/cm}^2$$



3.5 Grafikoa

$$\sigma_{bal} = \sigma_{max} - \sigma_{min}$$

$$\sigma_{min} = 0 \rightarrow \sigma_{bal} = \sigma_{max}$$

$$\sigma_r = \frac{\sigma_{max}}{2} = 725 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_m = \frac{\sigma_{max}}{2} = 725 \text{ kg/cm}^2$$

Ondoren, piezaren nekearekiko azterketa burutzeko material horretako probeta birakorraren nekeगतiko tentsio limitea kalkulatu behar da.

$$\sigma_e = \sigma_{e'} \cdot C_s \cdot C_d \cdot C_t \cdot C_v$$

Non,

$$\sigma_{e'} = 0,5 \cdot \sigma_u \rightarrow \sigma_u < 1400 \text{ MPa} \approx 14000 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_{e'} = 700 \text{ MPa} \rightarrow \sigma_u > 1400 \text{ MPa} \approx 14000 \text{ kg/cm}^2$$

$\sigma_u$  = Trakziozko erresistentzia ( aurretik  $R_e$  moduan definiturik)

$$\sigma_u = 580 \frac{N}{\text{mm}^2} \cdot \frac{1 \text{ Kg}}{9,81N} \cdot \frac{100\text{mm}^2}{1\text{cm}^2} = 5912 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_{e'} = 0,5 \cdot 5912 = 2956 \text{ kg/cm}^2$$

non,

$C_s$  = Gainazal akabera koef.  $\rightarrow C_s = 0,9$

$C_d$  = Dimentsio eta geometría koef.  $\rightarrow C_d = 0,75$

$C_t$  = Lan egoera koef.  $\rightarrow C_t = 0,8$

$C_v$  = Efektu anitzen koef.  $\rightarrow C_v = 1$

$$\sigma_e = \sigma_{e'} \cdot C_s \cdot C_d \cdot C_t \cdot C_v$$

$$\sigma_e = 2596 \cdot 0,9 \cdot 0,75 \cdot 0,8 \cdot 1 = 1401 \text{ kg/cm}^2$$

Aldagai guztiak definituta CS kalkulatu da, 1 baino handiagoa izan beharko dalarik nekeagatik aurrean lan egiteko.

$$\frac{1}{CS} = \frac{\sigma_m}{\sigma_{yp}} + \frac{\sigma_r}{\sigma_e} = \frac{725}{4281} + \frac{725}{1401} = 0,686$$

$$CS = \frac{1}{0,686} = 1,4577$$

Dimentsionamendu egokia nekeagatik ez hutsegiteko.

### 3.2.2 Kirtena

Atal honetan, zilindro oleohidraulikoaren kirtena aztertuko da.

#### 3.2.2.1 Kirtenaren Diametroa


Mugimendua kirtenaren bidez transmititzen da.

Kirtenak konpresiozko tentsio baten pean lan egiten dau. Horregatik, konpresio eta gilbordura kalkuluak burutuko dira honen diametroa determinatzeko. Behin diametroa ezaguturik neke kalkulua egingo da hutsegiterik ematen ez dan ziurtatzeko.

Hala ere, erabili beharreko diametroa zehazteko UNE 101360-86 araudia erabili egingo da.

### KONPRESIOA

Prentsak zilindro oleohidraulikoen bidez mahai mugikorra mugitzen dau bi mahaien arteko kontaktua emon arte. Zilindroaren kirtena behearanzko mugimendua transmititzeaz arduratu egiten da eta akzio erreakzio printzipio aplikatuz kirtena konpresio indarra pairatzen dau. Kasu partikular honetan 200Tn-tako konpresio indarra aplikatuko jako.



3.5 Irudia

Kalkulu honek burutzeko erabiliko dan materiala F-114 da, DIN 2391 araudia kontuan harturik.

Material honek dituen ezaugarri mekanikoak honakoak dira:

Materiala= F-114 kromatua

F=200.000Kg

E<sub>altzairu</sub>= 2,1·10<sup>6</sup> Kg/cm<sup>2</sup>

#### Propiedades mecánicas de la barra cromada

Propiedad mecánica	Unidades	F-114	F-125
Resistencia	N/mm <sup>2</sup>	630-850	900-1300
Lim. Elástico	Re N/mm <sup>2</sup>	min. 370	min. 650
Alargamiento	A5 % Min.	14	10
Ens. de Impacto	J	25	30-35
Dureza	HB	207	241
Soldabilidad		Buena	Buena

3.3 Taula

$$\sigma_r = 370 \frac{N}{mm^2} \cdot \frac{1Kg}{9,81N} \cdot \frac{100mm^2}{1cm^2} = 3771 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_e = 750 \frac{N}{mm^2} \cdot \frac{1Kg}{9,81N} \cdot \frac{100mm^2}{1cm^2} = 7645 \text{ kg/cm}^2$$

Lehenik eta behin segurtasun koefizientea zehaztu behar da.

CS hori kalkulatu beharra dago tentsio onargarria kalkulatu ahal izateko.

Kasu berezi honetan erabiliko dan segurtasun koefizientea 6 izango da, hau da, CS=6.




$$\sigma_{onarg} = \frac{\sigma_r}{CS} = \frac{3771}{6} = 628,5 \text{ kg/cm}^2$$

Materialaren tentsio onargarria eta zilindroak eragindako indarra ezagunak diranez, kirtenaren diametroa minimoa kalkulatu beharra dago.

$$\sigma_{onarg} = \frac{F}{A} = \frac{4 \cdot F}{\pi \cdot d^2} \rightarrow d = \sqrt{\frac{4 \cdot F}{\pi \cdot \sigma_{onarg}}} = \sqrt{\frac{4 \cdot 200000}{\pi \cdot 628,5}} = 20,128 \text{ cm} \rightarrow 201,28 \text{ mm}$$

d horren bitartez diametro normalizatua lortu daiteke.

Diametro normalizatu hori lortzeko UNE 101360-86 araudiak ematen duen taularen bitartez lortu daiteke.



AL – diámetro interior cilindro  
MM – diámetro vástago pistón

Fig. – Identificación diámetros

### 3.6 Irudia

Tabla 2  
Diámetros de vástagos de pistón<sup>1)</sup>

		Medidas en milímetros											
		4	5	6	8	10	12	14	16	18	20	22	25
MM		28	32	36	40	45	50	56	63	70	80	90	100
		110	125	140	160	180	200	220	250	280	320	360	

1) Una extensión hacia mayores valores de esta gama puede desarrollarse, si fuese necesario, usando la serie R20 de números normales.

### 3.4 Taula

Hurrengo diametroetatik handiagoa dan eta arautua dagoan hurrengo diametroa 220mm-takoa da, aurretik lortutako 200mm baino handiagoa baita.

## **GILBORDURA**

Fenomeno hau konpresio indarretan agerturiko arrsikutsuetako bat da. Lerdentasun handiko piezetan agertzen da normalean, beti ere konpresioan lanean badago. Fenomeno hau aztertzeko indar axiala kontutan izango da. Barra batek zuzentasuna mantentzeko indar kritiko baten azpitik egon behar da lanean, indar kritiko hau gainditzen danean barra inertzia minimoa dauan ardatzetik deformatuko da eta barra ezegonkorra egingo dau aplikatzen diran indarren artean. Hainbat método dagoz eta kasu honetan Euler edo Tetmajer-en irizpidea erabiliko da.

Kalkuluekaz hasteko kirtenaren luzera definitu beharra dago. Hori burutzeko datu hurbildu batzuk aukertuko dira. Datu honeen batura kirtenaren luzera izango da.

- Ibiltartea: 750mm, kirtenak daukan ibilbide luzera.
- Kanpoaldea: 150mm, atorratik kanpo gelditutako kirten zatia
- Haria: 150mm, Pistoia kokatzeko kirtenak izan beharreko hari neurria.
- Gidaria: 100mm, atoretik gidari kanpoaldera emandako distantzia.




Fig. – Identificación de las carreras de pistón

### 3.7 Irudia

## **Tabla**

### **Carreras de pistón**

Medidas en milímetros


S	25	50	80	100	125	160	200	250	320	400	500
NOTA – En caso de necesitar carreras de pistón más largas que las indicadas en esta tabla, utilizar los valores redondeados de la serie R10.											

### 3.5 Taula

Aipatzeko lehenik definituriko ibiltartea UNE 101363-86 araudiaren arabera jarraitu da. Goiko taulan ageri diran balioak gainditutako R10 serie baloretan sartzen da.

EULER-TETMAJER

Behin kirten luzera definitu egin dala, irizpide honetan gilbordura koefiziente bat erabiliko da. Koefiziente hau lau kasutarako bereiziko da. Kasu propio honetan, azken kasu hori aztertuko da.



## 3.8 Irudia

Kasu honetan erabiliko dan gilbordura luzera,  $L_K = 2 \cdot L$  izango da. Egoera honek mutur bat aske eta bestea landaturik.

Luzera definitu ahal izateko, aurretik definituriko balioak erabiliko dira, hari luzera kontuan izan barik.

$$L = 750 + 150 + 100 = 1000mm$$

Horregatik, nahiz eta errealitatean gilbordura luzera txikiagoa izan, segurtasun aldetik honako hau gertatzen da:

Kasu hau joanerako bakarrik erabiltzen da. Interesatzen dan egoera, joan etorrikoa da, horregatik luzera hori bikoiztu egingo da.

$$L = 2 \cdot L = 2 \cdot 1000 = 2000mm$$

$$L_K = 2 \cdot L = 2 \cdot 2000 = 4000mm$$

Euler edota Tetmajer formulak erabiliko dira indar kritiko balioak lortzeko. Indar kritikoa lerdentasunagaz zerkusia dauka, horregatik balio handiena daukanak, indar kritikoen dala suposatuko da.

Zenbat eta lerdentasun balio handiagoa izan, orduan eta gilbordura hutsegite arrisku handiagoa.

$$\text{Euler} \rightarrow P_{krit} = \frac{\pi^2 \cdot E \cdot I_{min}}{S.K \cdot L_p^2} \text{ baldin } \lambda > \lambda_E$$

$$\lambda_E = \frac{L_k}{i} = \frac{L_k}{\sqrt{\frac{I}{A}}} = \frac{4000}{\sqrt{\frac{114.990.145,1}{38.013,27}}} = 72,72$$

$$I = \frac{\pi}{64} \cdot d^4 = \frac{\pi}{64} \cdot 220^4 = 114.990.145,1 \text{ mm}^4$$

$$A = \frac{\pi}{4} \cdot d^2 = \frac{\pi}{4} \cdot 220^2 = 38.013,27 \text{ mm}^2$$

Tetmajer  $\rightarrow P_{krit} = \frac{d_{kirtena}^2 \cdot \pi(315-\lambda)}{S \cdot K \cdot 4}$  baldin  $\lambda \leq \lambda_E$

$$\lambda_T = \pi \cdot \sqrt{\frac{E}{\sigma_r}} = \pi \cdot \sqrt{\frac{2,1 \cdot 10^6}{3771}} = 74,1$$

$$\lambda_T < \lambda_E$$




Fig. 4.4.1 Comparación gráfica Rankine-Tetmajer-Euler

### 3.6 Grafikoa

Euler-en adierazpena erabilita lerdentasun balio handiagoa da. Proposaturiko indar kritikoa kalkulatu zilindroak jasandako indar handiagoa da, eta horregatik zilindroak ez du gilbordura arazorik izango.

$$F_{krit} = \frac{\pi^2 \cdot E \cdot I}{S \cdot K \cdot L_k^2}$$

Ondorengo kalkulua burutzeko 4-ko segurtasun balioa aukeratuko da.

$$F_{krit} = \frac{\pi^2 \cdot E \cdot I}{S \cdot K \cdot L_k^2} = \frac{\pi^2 \cdot 2,1 \cdot 10^6 \cdot 11499,0145}{4 \cdot 400^2} = 372.391,5kg$$

$$F_{krit} > F$$

Goiko adierazpen hori betetzen danez ez da inolango gilbordura arazorik emango.

### NEKEA

Osagaiek denboran zehar karga desberdinak sufritzen dabez, aldakorrak. Makina edota abarretan karga ziklikoak emoten dira, eta honeek dituen elementuen diseinuan hausturak agertzen dira.

Prozesu edota zikloak aurrera joan ahala, nahiz eta piezek muga elastiko baten azpian diseinaturik egon, ziklo kantitate baten ostean puskatu egiten dira.

Nekeगतिक agertzen diran hausturak denbora eta zikloak handitu ahala propagatu egiten dira. Horregatik, geldituriko elkargunea modu harikor edota hauskorrean puska daiteke. Normalean, haustura tentsio hori kontzentrazio guneetan ematen dira gehien bat.


Prentsaren zilindro kirtanak aztertzean kontura gaitezke konpresiozko indar aldakorrak sufritzen dituela zikloak bete bitartean.

Prentsa hidraulikoen zilindroek aplikaturiko kargen ondorioz denboran zehar tentsio aldakorrak agertuko dira. Horregatik, nekeगतिकo hutsegite hori azertu ahal izateko SODERBERG ekuazioa aplikatu egingo da:

$$\frac{1}{CS} = \frac{\sigma_m}{\sigma_{yp}} + \frac{\sigma_r}{\sigma_e}$$

$$\sigma_m = \frac{\sigma_{max} + \sigma_{min}}{2}$$

$$\sigma_r = \frac{\sigma_{max} - \sigma_{min}}{2}$$



3.7 Grafikoa

$$\sigma_{max} = \frac{F}{A} = \frac{200000}{A} = 526,13 \text{ kg/cm}^2$$

$$A = \frac{\pi}{4} \cdot d^2 = \frac{\pi}{4} \cdot 22^2 = 380,13 \text{ cm}^2$$

$$\sigma_{min} = 0$$

$$\sigma_m = \frac{\sigma_{max}}{2} = 263 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_r = \frac{\sigma_{max}}{2} = 263 \text{ kg/cm}^2$$

Batazbesteko zein tentsio alternoa kalkulatu eta gero, nekeagatiko tentsio limitea kalkulatu beharra dago, ondoko adierazpenak definitzen duena:

$$\sigma_e = \sigma_{e'} \cdot C_s \cdot C_d \cdot C_t \cdot C_v$$

non,

$$\sigma_{e'} = 0,5 \cdot \sigma_u \rightarrow \sigma_u < 1400 \text{ MPa} \approx 14000 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_{e'} = 700 \text{ MPa} \rightarrow \sigma_u > 1400 \text{ MPa} \approx 14000 \text{ kg/cm}^2$$

$\sigma_u$  = Trakzio erresistentzia ( aurretik  $R_e$  moduan definiturik)

$$\sigma_e = 750 \frac{N}{mm^2} \cdot \frac{1Kg}{9,81N} \cdot \frac{100mm^2}{1cm^2} = 7645 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_{e'} = 0,5 \cdot \sigma_e = 3822,5 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_e = \sigma_{e'} \cdot C_s \cdot C_d \cdot C_t \cdot C_v = 3822,5 \cdot 0,9 \cdot 0,75 \cdot 0,8 \cdot 1 = 2064,15 \text{ kg/cm}^2$$

Formula hori bete eta gero, nekeagatikko segurtasun koefizientea kalkulatu beharra dago:

$$\frac{1}{CS} = \frac{\sigma_m}{\sigma_{yp}} + \frac{\sigma_r}{\sigma_e} = \frac{263}{3771} + \frac{263}{2064,15} = 0,1971$$

$$CS = 5,0721$$

Lorturiko segurtasun koefizientea unitatea baino askoz handiagoa danez, hutsegitearekiko nekea egokia da.

### 3.2.2.2 KIRTENAREN MUTURRA


Kirtenaren muturrean, brida zatitu batez mahai mugikorrera finkatuta doan arteka bat agertuko da. Hori, zilindroak mugimenduak osatzean kolperik izan ez dezan mahai mugikorragaz burutzen da. Kirtena zein pistoia hasierako posiziora bueltatzean artekak trakzio indar bat jasaten dau. Horren ondorioz, arteka horretan tentsio kontzentrazioak agertu daitezke. Horretarako CS behar izango da eta horren bitartez, nekea kalkulatzeko posible izango da.

Horretarako hasierako datu batzuk erraztuko dira:

$$D = 220\text{mm}$$

$$d = 150\text{mm}$$

$$r = 6\text{mm}$$




3.9 Irudia

Tentsio kontzentrazioen kalkuluek laguntzen bat izan ahal izateko ondorengo erlazioak izango dira kontutan:

$$\frac{D}{d} = \frac{220}{150} = 1,46$$

$$\frac{r}{d} = \frac{6}{150} = 0,04$$



3.8 Grafikoa

$$k_t = 2,86$$

Tentsio kontzentrazioaren koefizientea lortu eta gero, trakziozko tentsioa aztertuko da segurtasun koefizientea askatuz. Suposatuko da trakzioa lan egitean altxatu egingo dan mahai pisua 3000kg-koa izango dala.



$$\frac{\sigma_r}{CS} = \frac{k_t \cdot F}{A} \rightarrow CS = \frac{A \cdot \sigma_r}{k_t \cdot F}$$


$$A = \frac{\pi \cdot d^2}{4} = \frac{\pi \cdot 150^2}{4} = 17671,46 \text{ mm}^2 = 176,7146 \text{ cm}^2$$

$$CS = \frac{A \cdot \sigma_r}{k_t \cdot F} = \frac{176,7146 \cdot 3771}{2,86 \cdot 3000} = 77,67$$

Segurtasun aldetik ez da inolako arazorik aurkituko.

### NEKEA

Aplikaturiko indarrak modu irregular baten ematen dira, hala izanda be, modu sinusoidal baten forma hartzen dabe ziklo batzuen menpe.



3.9 Grafikoa

Tentsioa aztertzeko, Soderberg-en ekuazioa erabili beharra dago:

$$\frac{1}{CS} = \frac{\sigma_m}{\sigma_{yp}} + \frac{\sigma_r}{\sigma_e}$$

Behin aldagai horreek definituta izanda, honako adierazpenak kalkulatu:

$$\sigma_m = \frac{\sigma_{max} + \sigma_{min}}{2}$$

$$\sigma_r = \frac{\sigma_{max} - \sigma_{min}}{2}$$

Tentsio maximoa kalkulatu besterik aurreko adierazpenen bi tentsio horreek kalkulatu daitezke, bai batazbestekoa zein alternoa.

$$\sigma_{max} = \frac{k_t \cdot F}{A} = \frac{2,86 \cdot 3000}{176,7146} = 48,55 \text{ kg/cm}^2$$

$$A = \frac{\pi \cdot d^2}{4} = \frac{\pi \cdot 150^2}{4} = 17671,46 \text{ mm}^2 = 176,7146 \text{ cm}^2$$

$$\sigma_{min} = 0$$

$$\sigma_r = \frac{\sigma_{max} - \sigma_{min}}{2} = \frac{48,55}{2} = 24,276 \text{ kg/cm}^2 = \sigma_m$$

Nekearen tentsio limitea:

$$\sigma_e = \sigma_{e'} \cdot C_s \cdot C_d \cdot C_t \cdot C_v$$

non,

$$\sigma_{e'} = 0,5 \cdot \sigma_u \rightarrow \sigma_u < 1400 \text{ MPa} \approx 14000 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_{e'} = 700 \text{ MPa} \rightarrow \sigma_u > 1400 \text{ MPa} \approx 14000 \text{ kg/cm}^2$$

$\sigma_u$  = Trakzio erresistentzia ( aurretik  $R_e$  moduan definiturik)

$$\sigma_e = 750 \frac{\text{N}}{\text{mm}^2} \cdot \frac{1 \text{Kg}}{9,81 \text{N}} \cdot \frac{100 \text{mm}^2}{1 \text{cm}^2} = 7645 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_{e'} = 0,5 \cdot \sigma_e = 3822,5 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_e = \sigma_{e'} \cdot C_s \cdot C_d \cdot C_t \cdot C_v = 3822,5 \cdot 0,9 \cdot 0,8 \cdot 0,8 \cdot 1 = 2201,76 \text{ kg/cm}^2$$

Aldagai guztiak kalkulatu eta gero  $C_s$  segurtasun koefizientea kalkulatu da:

$$\frac{1}{CS} = \frac{\sigma_m}{\sigma_{yp}} + \frac{\sigma_r}{\sigma_e} = \frac{24,276}{3771} + \frac{24,276}{2201,76} = 0,01746$$

$$CS = 57,27$$

Dimentsionamendu egokia egin da ez hutsegiteko.

### 3.2.3 ESTALKIA

Jariakinek presio bat sortzen dabe zilindroaren estalkian, horregatik, atortetik banatzeko tendentzia hartzen dau. Alde batetik, loturak aztertu behar dira, eta bestetik, zurrinak izan beharko dira deformazioei eusteko.

Kasu batzuetan ez da beharrezkoa estalkiaren lodiera lortzea, estalkiaren bidez jariakina ponpatzeko zuloak egin ohi dira eta. Kasu honetan, estalkiak jasandako indarra deformatzeaz gain, lodiera, hari nuerria eta soldadura zehaztuko dira.

Jasandako indarekin hasteko, presioa, indarra eta azalera erlazionaturiko formua edo adierazpen hau izango da kontutan:

$$F = P \cdot A = P \cdot \frac{\pi \cdot \varnothing^2}{4}$$

Non,

F: Loturan sorturiko banaketa indarra

P: Jariakinaren presio maximoa

$d_{\text{barne}}$ = Atorraren barne diametroa

A: Zilindroaren barne azalera

$d = 220\text{mm} \rightarrow 22\text{cm}$

$$P = 315 \text{ bar} = 321,1 \text{ kg/cm}^2$$

$$F = P \cdot A = P \cdot \frac{\pi \cdot \varnothing^2}{4} = 321,1 \cdot \frac{\pi \cdot 22^2}{4} = 122060,61\text{kg}$$

### 3.2.3.1 ESTALKIAREN LODIERA

Estalkia, xafla leuna, zirkularra eta lodiera konstanteduna izan behar da, eta horretaz aparte, barne presioa dala eta karga uniformeki banatua egongo da.

Baldintza horreek kontuan harturik estalkiaren lodiera minimoa lor daiteke:

$$a = \frac{D - d}{2} \sqrt{\frac{P}{\sigma_{onarg}}}$$

non,

a = estalkiaren lodiera

D = Zilindroaren kanpo diametroa

d = Zilindroaren barne diametroa

P = Harilkatuaren gainazal presioa

$\sigma_{onarg}$  = Materialaren tentsio onargarria

$$\sigma_{onarg} = \frac{\sigma_{flu}}{2} = \frac{3771}{2} = 1885 \text{ kg/cm}^2$$

Estaldiaren lodiera minimoaren adierazpena:

$$a = \frac{D - d}{2} \sqrt{\frac{P}{\sigma_{onarg}}} = \frac{43 - 32}{2} \sqrt{\frac{321,1}{1885}} = 2,27 \text{ cm} \approx 23 \text{ mm}$$

### 3.2.3.2 ESTALKIAREN HARIA

Haria determinate ahal izateko, atorrari fluidoak sorturiko barne presio hori eusten duen hari bat determinatu beharra dago. Horretarako M330x3 aukeratu da. Hori egin eta gero, hariaren luzera kalkulatu da, Niemann metodoa erabiliz, segurtasun koefizientea 3 harturik:

$$\sigma = \frac{F}{i \cdot A_h}$$

non,

i= hari kopurua

$A_h$  = hari azalera ( $\text{mm}^2$ )

$$i = \frac{h}{m} \text{ eta } A_h = \pi \cdot d \cdot t$$

Hari kopuruaren ekuazioa eta hari bakoitzak daukan azaleraren adierazpenak ordezkatzuz:

$$\sigma = \frac{F}{\frac{h}{m} \cdot \pi \cdot d \cdot t}$$

$$h = \frac{F \cdot m}{\sigma \cdot \pi \cdot d \cdot t}$$

non,

h = hari luzera

m= hari neurria

$\sigma$ = hariaren gainazal tentsioa

d= hariaren batzbesteko diametroa(mm)

t= hariaren sakonera

F= prentsa indarra

$$\sigma_{max} = \frac{\sigma_{flu}}{3} = \frac{3771}{3} = 1257 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma = \frac{\sigma_{max} - \sigma_{min}}{2} = \frac{1257 - 0}{2} = 628 \text{ kg/cm}^2 \cdot \frac{1 \text{ cm}^2}{100 \text{ mm}^2} = 6,28 \text{ kg/mm}^2$$

Gainazal tentsioa lortu eta gero, hariaren batz besteko diametroa eta hariaren sakonera kalkulatu egingo da.

$$d = D_{torloju} - 0,65m = 330 - 0,65 \cdot 3 = 328,05 \text{ mm}$$

$$t = 0,6495m = 0,6495 \cdot 3 = 1,9485 \text{ mm}$$


Aldagai guztiak definitzea lortu ondoren hariaren luzera kalkulatu da, goiko adierazpenean lagunduta:

$$h = \frac{F \cdot m}{\sigma \cdot \pi \cdot d \cdot t} = \frac{200000 \cdot 3}{6,28 \cdot \pi \cdot 328,05 \cdot 1,9485} = 47,57 \text{ mm} \approx 48 \text{ mm}$$

### ESTALKIAREN SOLDADURA

Estalkiaren elementu guztien kalkuluak segurtasun koefizienteekaz burutu dira, prozesuaren segurtasuna izateko asmoz, horretarako be soldadura kordoi bat burutuko da, zilindro atorraren eta estalkiaren arteko loturan.

Aplikatu egingo dan soldadura mota "V" itxurakoa izando da, 45°-tara ezaguna dana.



3.10 Irudia

$$\sigma = \frac{F}{\pi \cdot (D - d) \cdot h} \leq \sigma_{onar}$$

$$h = \frac{F}{\pi \cdot (D - d) \cdot \sigma_{onar}} = \frac{200000}{\pi \cdot (43 - 32) \cdot 1885} = 3,070\text{cm} \approx 31\text{mm}$$

### 3.2.4 GIDARIA

Gidak, bi funtzio beteko dauz. Alde batetik, kirtenari gida bezala lantzea, eta bestetik, atorraren estalki modura funtzionatzea. Hori dala eta, hari neurria jakitea nahitaezkoa da. Gidariak jariakinik ez ihes egiteko juntak eta eraztunak izango dauz.

Gidariak jasandako indarra:

$$F = \frac{\pi \cdot (D^2 - d^2)}{4} \cdot P = \frac{\pi \cdot (32^2 - 22^2)}{4} \cdot 321,1 = 136183,33\text{kg}$$

#### 3.2.4.1 GIDARI HARIA

Aurretik esan dan bezala, Niemann prozedura erabiliko da hariaren kalkuluak burutzeko:

$$h = \frac{F \cdot m}{\sigma \cdot \pi \cdot d \cdot t} = \frac{200000 \cdot 3}{6,28 \cdot \pi \cdot 328,05 \cdot 1,9485} = 47,57\text{mm} \approx 48\text{mm}$$

$$\sigma = \frac{F \cdot m}{h \cdot \pi \cdot d \cdot t} = \frac{200000 \cdot 3}{60 \cdot \pi \cdot 328,05 \cdot 1,9485} = 4,9797\text{kg/mm}^2$$

Hurrengo atalean tentsio maximoa kalkulatu beharra dago, horretarako beharrezkoa da seguratsun kofizientearen balio jakitea.

$$\sigma = \frac{\sigma_{max} - \sigma_{min}}{2} \rightarrow \sigma_{max} = \sigma \cdot 2 = 4,9797 \cdot 2 = 9,9595 \frac{kg}{mm^2} \cdot \frac{100mm^2}{1cm^2}$$

$$= 995,95 \frac{kg}{cm^2}$$

$$\sigma_{max} = \frac{\sigma_{flu}}{CS} \rightarrow CS = \frac{\sigma_{flu}}{\sigma_{max}} = \frac{3771}{995,95} = 3,7863$$

CS-a onargarria da.

### 3.2.4.2 GIDARIAREN LODIERA

Lodieraren alderdi hau kalkulatzeko erabili egingo dan segurtasun koefizientea 2-koa da. Horren bitartez, tentsio onargariia kalkulatzea ahal izango da, beti materialaren osagaiak jakinda beti. Erabilitako materiala F114 da, 3771kg/cm<sup>2</sup>-ko fluentzia tentsioa daukana.

$$\sigma_{onarg} = \frac{\sigma_{flu}}{2} = \frac{3771}{2} = 1885 \frac{kg}{cm^2}$$

Gidariaren lodiera minimoaren adierazpena:

$$a = \frac{D - d}{2} \sqrt{\frac{P}{\sigma_{onarg}}} = \frac{43 - 32}{2} \sqrt{\frac{321,1}{1885}} = 2,27 \text{ cm} \approx 23 \text{ mm}$$

### 3.2.5 PISTOIA

Zilindro oleohidraulikoaren atal garrantzitsu bat da. Pistoia funtzioa jariatzen pasatzen ez itxi, eta prensa jasan beharreko presioa pistoiak berak eusten dau.

Pistoiak zilindroaren barruan gehien aldatzen dan pieza da.

Kalkuluak burutzeko tentsio ebakitzailaren adierazpena jarraituko da:

$$\tau_{onarg} = \frac{\sigma_{onar}}{\sqrt{3}} = \frac{F}{A}$$

Tentsio ebakitzaila ezezaguna da, beraz, indar eta azalera erabilgarriak izango dira tentsio axial onargariagaz bat jartzeko.

$$\sigma_{onarg} = \frac{\sigma_{flu}}{6} = 628 \frac{kg}{cm^2}$$

$$A = \pi \cdot d \cdot L$$

Lodieraren kalkulua amaitutzat emateko:

$$\frac{\sigma_{onar}}{\sqrt{3}} = \frac{F}{A}$$

$$L = \frac{F \cdot \sqrt{3}}{\pi \cdot d \cdot \sigma_{onarg}} = \frac{200000 \cdot \sqrt{3}}{\pi \cdot 22 \cdot 628} = 7,98cm$$

### 3.2.6 BRIDA

Brida zilindroagaz lotura zuzena dauka, harilkatu eta sodadura bidez ematen dana. Brida goiko muntaira torloju bidez loturik dago.

Prentsak lanik egiten ez duenean, torloju horreek trakzion indarraren menpe egongo dira, pisuagatik, mahai mugikorragatik edota tresnen pisuagatik.

Funtzionamenduan, ostera, indar guztia soldadura gunek jasotzen dau.

Bridaren kalkulua burutu ahal izateko atal desbadin hauek bete behar dira:

Tentsio ebakitzailak baldintza hau bete:

$$\frac{\sigma}{2} < \tau \leq \frac{\sigma}{\sqrt{3}}$$

$$1885 < \tau \leq 2177$$

Bridak jasan daiketen tentsio ebakitzaila 1885 kg/cm<sup>2</sup>- bada, hau izango da beharrezko segurtasun koefizientea:

$$\frac{\tau}{CS} = \frac{F}{A}$$

Zilindro hidraulikoak jasan daiketen indarrak jaso behar dauz bridak, hau da, 3000kg.

$$A = 2\pi \cdot r \cdot h = 2\pi \cdot 110 \cdot 24 = 16587,61mm^2 \cdot \frac{1cm^2}{100mm^2} = 165,876cm^2$$

Segurtasun koefizientea lortu ahal izateko azalera indarra eta tentsio ebakitzaila elkar konekatatu behar dira adierazpen berean:

$$\frac{\tau}{CS} = \frac{F}{A}$$

$$CS = \frac{\tau \cdot A}{F} = \frac{1885 \cdot 165,876}{3000} = 104,22$$

Segurtasun koefiziente aldetik onargarria dala esan daiteke.



### 3.2.6.1 BRIDAREN ETA ZILINDROAREN ARTEKO LOTURA

Lehen aipatu bezala, bridaren eta zilindroaren kontaktua harilkatuaren eta soldaduraren bidez emango da. Harilkatuari dagokionez aukeraturiko lotura M420x3 da.

Niemann metodoa erabilia honako adierazpen honen bitartez defini daiteke:

$$h = \frac{F \cdot m}{\sigma \cdot \pi \cdot d \cdot t}$$

$$\sigma = \frac{F}{\frac{h}{m} \cdot \pi \cdot d \cdot t}$$

non,

m = Harilkatuaren pausua

h = Harilkatu luzera

d = hariaren batzbesteko diametroa

F = Luzetarako indar maximoa

t = hariaren sakonera

Lehencabizi parámetro batzuk zehaztu behar dira:

$$P = 100000kg$$

$$m = 3mm$$

Hori zehazturik, t eta d aldagaiak lortuko dira:

$$d = D_{torloju} - 0,65m = 420 - 0,65 \cdot 3 = 418,05mm$$

$$t = 0,6495m = 1,9485mm$$

Haria beraren sakonera eta hariaren batzbesteko diametroa definitu izan ondoren. Hariaren gainazal tentsioa kalkulatu da.

$$\sigma_{max} = \frac{\sigma_{flu}}{CS} = \frac{3771}{3} = 1257 kg/cm^2$$

$$\sigma = \frac{\sigma_{max} - \sigma_{min}}{2} = \frac{1257 - 0}{2} = 628 kg/cm^2 \cdot \frac{1cm^2}{100mm^2} = 6,28 kg/mm^2$$

Kalkulatuko dan hurrengo gauza hariaren luzera izango da:

$$h = \frac{F \cdot m}{\sigma \cdot \pi \cdot d \cdot t} = \frac{200000 \cdot 3}{6,28 \cdot \pi \cdot 417,05 \cdot 1,9485} = 37,4242\text{mm} \approx 38\text{mm}$$

Hari luzera kalkulatu izan ondoren, gainazal tentsioa kalkulatu da:

$$\sigma = \frac{F \cdot m}{h \cdot \pi \cdot d \cdot t} = \frac{200000 \cdot 3}{38 \cdot \pi \cdot 418,05 \cdot 1,9485} = 6,17 \text{ kg/mm}^2$$

Gainazal tentsioa kalkulatu izanda, tentsio maximoa kalkulatu egingo da. Hau lortuko da seguratsun koefizientea onargarria dan ikusteko.

$$\sigma = \frac{\sigma_{max} - \sigma_{min}}{2} \rightarrow \sigma_{max} = \sigma \cdot 2 = 6,17 \cdot 2 = 12,34 \frac{\text{kg}}{\text{mm}^2} \cdot \frac{100\text{mm}^2}{1\text{cm}^2} = 1234 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_{max} = \frac{\sigma_{flu}}{CS} \rightarrow CS = \frac{\sigma_{flu}}{\sigma_{max}} = \frac{3771}{1234} = 3,056$$

CS segurtasun koefizientea 1 baino handiagoa denez, onargarria da.

### 3.2.7 TORLOJUAK

#### 3.2.7.1 Torloju bidezko loturak

Lehen esan bezala torlojuak brida goiko muntagara ikatzen laguntzen dabe, baina ez da ezagutzen erabilitako torloju kopurua.

Kasu honetarako 8 torloju nahikoak izango dirala suposatuta egingo da.

Aukeratuak torlojuen ezaugarri nagusiak honakoak dira:

	clases de resistencia	3.6	6.8	8.8		10.9	12.9
				d ≤ M16*	d ≥ M16*		
<b>Resistencia a la tracción **</b> R <sub>m</sub> en N/mm <sup>2</sup>	valor nominal	300		800		1000	1200
	mínimo	330	600	800	830	1040	1220
<b>Límite de fluencia **</b> R <sub>el</sub> en N/mm <sup>2</sup>	valor nominal	180	480	-	-	-	-
	mínimo	190	480	-	-	-	-
<b>Límite de alargamiento</b> (tensión en un límite fijo permanente) **	valor nominal			640	640	900	1080
	mínimo			640	660	940	1100
<b>Tensión y fuerza de ensayo S<sub>p</sub></b> N/mm <sup>2</sup>	Sp / Rei ó Sp / Rp 0,2	0.94	0.92	0.91		0.88	0.88
	Límite de fluencia inferior R <sub>el</sub> o + 100° C	180	440	580	600	830	970
		-	-	590		875	1090

3.6 Taula

$$\sigma_r = 830 \text{ N/mm}^2 \cdot \frac{1 \text{ kg}}{9,81 \text{ N}} \cdot \frac{100 \text{ mm}^2}{1 \text{ cm}^2} = 8460 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_e = 640 \text{ N/mm}^2 \cdot \frac{1 \text{ kg}}{9,81 \text{ N}} \cdot \frac{100 \text{ mm}^2}{1 \text{ cm}^2} = 6523 \text{ kg/cm}^2$$

Torloju guzti honeek jasan behar daben karga osoa 3000kg-koa dala estimatzen da. Lehenik eta behin, bridan dagoan torloju bakoitzak jazo beharreko indar balio kalkulatu egingo da.

$$F_{torloju} = \frac{F_{tot}}{n^o}$$

$F_{torloju}$  = Torlojuak jazandako indarra

$F_{total}$  = Guztira jazandako indarra

$n^o$  = Torloju kopurua

$$F_{torloju} = \frac{3000}{8} = 375 \text{ kg}$$

Indarra eta azalera elkar konbinatuz torloju bakoitzak sorturiko tenstio axiala kalkula daiteke:

$$\sigma_{torloju} = \frac{F_{torloju}}{A}$$

$\sigma_{torloju}$  = Torlojuak jazandako tentsioa

$F_{torloju}$  = torlojuak jazandako indarra

A = Torloju zeharkako azalera

$$A = \frac{\pi \cdot d^2}{4} = \frac{\pi \cdot 20^2}{4} = 254 \text{ mm}^2 \cdot \frac{1 \text{ cm}^2}{100 \text{ mm}^2} = 2,54 \text{ cm}^2$$

Jadanik azaleraren balio izanda, tentsio kalkula lei:

$$\sigma_{torloju} = \frac{F_{torloju}}{A} = \frac{375}{2,54} = 147,63 \text{ kg/cm}^2$$

Kalkulatu behar dan azkenengo atala CS segurtasun koefizientearena da:

$$CS = \frac{\sigma_e}{\sigma_{torloju}} = \frac{6523}{147,63} = 44,185$$

NEKEA

Nekeगतिको hutsegitea emon ez dadin adierazteko Soderberg-en adierazpena erabili egiten da:

$$\frac{\sigma_{yp}}{CS} = \sigma_m + k_f \cdot \sigma_r \cdot \frac{\sigma_{yp}}{\sigma_e' \cdot C_s \cdot C_d \cdot C_f \cdot C_t} = \sigma_m + k_f \cdot \sigma_r \cdot \frac{\sigma_{yp}}{\sigma_e}$$

Non,

CS = segurtasun koefizientea

$\sigma_m = \frac{\sigma_{max} + \sigma_{min}}{2}$ ; Batzbesteko tentsioa

$\sigma_r = \frac{\sigma_{max} - \sigma_{min}}{2}$ ; Tentsio alterno

$\sigma_e'$  = Materialaren neke muga

$\sigma_e$  = piezaren neke muga tentsioa

$C_s$  = Gainazal akabera koefizientea

$C_d$  = Dimentsio eta geometria koefizientea

$C_t$  = Lan era koefizientea

$C_f$  = fiakortasun koefizientea


Tentsio nagusi edo printzipalak zehaztuko dira.

$$\sigma_{torloju} = \sigma_{max} = 147,63 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_{min} = 0$$

Egoera ziklikoa dala eta, ziklo bakoitzean tentsio alterno eta batzbestekoa agertuko dira.

$$\sigma_r = \frac{\sigma_{max}}{2} = 73,815 \text{ kg/cm}^2 = \sigma_m$$



3.10 Grafikoa

Ondoren nekeak piezarekiko daukan esangura aztertu beharra dago:

$$\sigma_{e'} = 0,5 \cdot \sigma_u \rightarrow \sigma_u < 1400 \text{ MPa} \approx 14000 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_{e'} = 700 \text{ MPa} \rightarrow \sigma_u > 1400 \text{ MPa} \approx 14000 \text{ kg/cm}^2$$

$\sigma_u$ = Trakzio erresistentzia ( aurretik  $R_e$  moduan definiturik)

$$\sigma_e = 830 \frac{\text{N}}{\text{mm}^2} \cdot \frac{1\text{Kg}}{9,81\text{N}} \cdot \frac{100\text{mm}^2}{1\text{cm}^2} = 8460 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_{e'} = 0,5 \cdot \sigma_e = 4230 \text{ kg/cm}^2$$

Ondoren nekeagatik tentsio limitea kalkulatu da, hurrengo adierazpena erabiliz:

$$\sigma_e = \sigma_{e'} \cdot C_s \cdot C_d \cdot C_t \cdot C_v$$

Non,

$C_s$ = Gainazal akabera koefizientea  $\rightarrow C_s = 0.9$

$C_d$  = Dimentsio eta geometria koefizientea  $\rightarrow C_d = 0.85$

$C_t$ = Lan egoera koefizientea  $\rightarrow C_t = 0.8$

$C_v$ = Efektu anitzen koefizientea  $\rightarrow C_v = 1$


$$\sigma_e = \sigma_{e'} \cdot C_s \cdot C_d \cdot C_t \cdot C_v = 4230 \cdot 0,9 \cdot 0,85 \cdot 0,8 \cdot 1 = 2588 \text{ kg/cm}^2$$

Tentsio egoerak aztertuta Soderberg ekuazioa burutuko da:

$$\frac{1}{CS} = \frac{\sigma_m}{\sigma_{yp}} + \frac{\sigma_r}{\sigma_e} = \frac{73,815}{6523} + \frac{73,815}{2588} = 0,03717$$

$$CS = 26,90$$

$CS$  segurtasun koefizientea unitatea baino handiagoa denez, onargarria da.



3.11 Grafikoa

### 3.2.8 JUNTA, GIDA ERAZTUNAK ETA ARRASPA


Junta Torikoa: eraztunak dira. Isolamendua baimendu egiten dabe gomaz osaturik. Zilindro hidrauliko, pneumatiko edo ur azpiko lanetan erabiltzen dira gehienbat. Ixte elementuetan kokatu egite dira, presioa jasateko aproposak baitira.

Arraspa: Nahiz eta olioizko kapa bat pasatzen itxi, elementu elastiko honek gainazal zikinkeria kentzen dau. Bere kokapenari gagokionez, gidariaren azken partean kokatzen da.

Gida eraztunak: Isolamendu elementuak deformazio txikiak agertuz, kargen ondorioz.

#### 3.2.8.1 GIDARIA

Atal honetan agertzen diran elementu garrantzitsuenak gidariak eta juntak dira, pieza honetatik atera daiteken neurri handi baten olioia kirtena eta gidariaren doiketa ona ez bada, hori ez da isolamenduzko elementu ugarira joko.



3.11 Irudia

### 3.2.8.2 ARRASPA

Arraspa gainzaleko zikinkeria garbitzeko balio dau, nahiz eta olio kapa fin bat pasatzen itxi. Kirtenagaz kontaktuan dagoanez "Epidor" katalogotik arraspa egokia aukeratuko da.

#### Información Técnica

##### ■ Material

Material: Caucho nitrílico NBR  
Denominación: 85 NBR B247  
Dureza: 85 Shore A

##### ■ Propiedades

Rascador doble con labio de estanqueidad adicional.

- Posibilidad de fabricar dimensiones intermedias sin la fabricación de molde.
- Elevado efecto rascador.
- Muy buen efecto estanqueizante de la película residual de aceite.
- Resistente al desgaste.

Para evitar una acumulación de presiones entre la junta y el rascador recomendamos prever un taladro de descarga.

##### · Ejemplos de aplicación

- Máquinas de inyección
- Cilindros estándar grandes
- Prensas


##### ■ Campo de aplicación

Velocidad: 2 m/s

#### 3.7 Taula

Arraspa motak 85 Shore A gogrtasun edukia aztertzetik lortzen da. Prentsa honek behar dauzan 315bar presioak jasateko gai izanez eta jazan beharreko abiadura maximoa 2m/s izanez eta 1,3m/s.

Arraspa egokia hautatzeko kirtenaren diametroagaz bat datorren bat aukeratu beharra dago. Kasu honetan kirtenaren diametroa 220 mm-takoa da.



3.12 Irudia

d	D (H11)	D1 (+0,2)	L	H	L1	R2	Código	d	D (H11)	D1 (+0,2)	L	H	L1	R2	Código
200	220	210	10,2	18	18	1,5	338.710*	530	560	545	18	27	27	3	338.731*
210	230	220	10,2	18	18	1,5	338.720	540	570	555	18	27	27	3	338.752
220	240	230	10,2	18	18	1,5	338.756	545	575	560	18	27	27	3	338.790*
225	245	235	10,2	18	18	1,5	338.778*	550	580	565	18	27	27	3	338.761*
230	250	240	10,2	18	18	1,5	338.730	560	590	575	18	27	27	3	338.751*
240	260	250	10,2	18	18	1,5	338.708	565	595	580	18	27	27	3	338.786*
250	275	262,6	16	22,5	22,5	2	338.705	570	600	585	18	27	27	3	338.742*
260	285	272,6	16	22,5	22,5	2	338.721	580	610	595	18	27	27	3	338.732*
265	290	277,6	16	22,5	22,5	2	338.762	585	615	600	18	27	27	3	338.785*
270	295	282,6	16	22,5	22,5	2	338.711	590	620	605	18	27	27	3	338.743*
280	305	292,6	16	22,5	22,5	2	338.707	600	630	615	18	27	27	3	338.726*
290	315	302,6	16	22,5	22,5	2	338.737	610	640	625	18	27	27	3	338.773*

3.8 Taula


Kirtenaren baren diametroa 220 mm daukan nitrio kautxua NBR arraspa aukeratu egin da. "Epidor" P9 338.756

### 3.2.8.3 GIDARI JUNTA

Gidari junta honek lan printzipal zein sekundarioak betetzeko aukera dauka, "Epidor" katalogotik aukeratu dana. Kirtenaren diametroaren balioa izanda, presio eta abiadura balioak errespetatuz aukeratu da.

Información Técnica	
